

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

4876

ERABAKIA, 2016ko azaroaren 3koa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluarena, Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen arautegiaren aldaketa onartzeko.

1.– 2016ko urriaren 5eko saioan, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko batzarrak erabaki zuen Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen indarreko arautegia aldatzea (2016ko urriaren 14ko EHAA) fakultateko dekanoa hautatzeko arautegiaren 14. artikuluan aurreikusten den sistema aldatzeko.

2.– Proposatutako aldaketak izan behar duen legezotasun-txostena du eta Estatutuak eta Arautegiak Garatzeko Batzordeak diktaminatu du, 2016ko urriaren 26an bildurik.

3.– Gobernu Kontseiluari dagokio behin betiko onartzea ikastegien arautegietan egindako aldaketak.

Beraz, idazkari nagusiaren proposamenari jarraituz, Gobernu Kontseiluak hau

ERABAKITZEN DU:

Lehenengoa.– Aldatzea Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen arautegiko 14. artikulua, eta horrela idatzita gelditzea:

«14. artikulua.– Ikastegien oinarrizko arautegiko 24. artikuluekiko komunztadura.

1.– Dekanoa fakultateko kide bakarreko gobernu, ordezkaritza eta administrazio organo gorena da, eta ikastegiko batzarrak hautatzen du ikastegiari atxikitako irakasle-ikertzaile iraunkor dokto-reen artetik, eta errektoreak izendatzen du. Honelakorik ez balego, irakasle-ikertzaile iraunkorren artetik aukeratuko litzateke.

2.– Fakultateko dekanoa izateko hautagai-zerrenda, hauteskundeetarako deialdia argitara eman eta biharamunetik hasita, 15 eguneko epean aurkeztuko da, eta gobernu taldearen egitura eta bere programa jaso beharko ditu. Dekanoa errektoreak izendatu behar du, eta izendatu ondoren hasiko da bere eginkizunak betetzen. Agintaldia lau urtetakoa izango da eta, gehienez, bi agintaldi bete ahal izango ditu segidan.»

Bigarrena.– Agintzea erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin.

Hirugarrena.– Arautegia indarrean sartuko da argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Leioa, 2016ko azaroaren 3a.

Errektorea,
IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA.

Idazkari nagusia,
JOSE LUIS MARTÍN GONZÁLEZ.